

Euskarari buruzko iritziak eta jarrerak Araban

Soziolinguistikako Klusterraren emaitzek adierazten duten bezala, Euskal Kulturarekin gehien lotzen diren elementuak zeintzuk diren galdetzerakoan erantzun duten arabarren erdiak baino gehiagok (53) aukeratu du *euskara* euskal kulturarekin gehien lotzen dituen hiru elementuen artean. Honela, elementurik hautatuena da, nabarmen, bestelako elementu folkloriko, artistiko eta




Iturria: Baxok, E. et al. (2006) Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearren hasieran. Donostia. Eusko Ikaskuntza

ohiturazkoen aurretik (2006).

Euskara sustatzearen aurreko jarreraren bilakaera aztertzeko orduan, arabarren proportzio oso berdintsuak kokatzen dira alde, aurka edo ez alde, ez aurka.

Euskara sustatzearen aurreko jarreraren bilakaera Araban, 1991-2006



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. HPS. Eusko Jaurianitza


Euskara ikastearekiko egoeraren aurrean, euskara gutxi dakiten edo ez dakiten biztanleen artean, %23 dira gaur egun ikasten ez aritu arren, noizbait ibili direnak eta beste %21, berriz, baldintza egokiak izanez gero, horretarako interesa adierazten dutenak.



Iturria: Baxok, E. et al. (2005) Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran. Donostia. Eusko ikaskuntza

Bestalde, euskara transmititzearen aldeko jarrera du arabarren gehiengoak. Transmisioaren gainean aurkako iritzia oso-oso mugatua da (%1), eta nahiko txikia ere axolagabetasuna ageri dutenena (%7).

Hizkuntza-transmisioaren aurreko jarrerak



Iturria: Baxok, E. et al. (2006) Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran. Donostia. Eusko ikaskuntza